



L- KONTRIBUZIO BEREZIAK ARAUTZEKO ZERGA-ORDENANTZA

I. KAPITULUA. ZERGAREN OINARRIA

1. artikulua.-

Abenduaren 30eko 39/88 Legeko 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantza hau zehaztuko da oro har, Urduñako Udalak zerga finalista moduan eskatu ditzakeen kontribuzio berezien ezarpena eta antolamendua arautzeko.

II. KAPITULUA. ZERGA-EGITATEA.

2. artikulua.-

2.1. Kontribuzio berezietako zerga-egitatea izango da subjektu pasiboak onura edo bere ondasunen balioaren gehikuntza lortzea, udalak edo hurrengo artikuluan aipatutako erakundeek egindako herrilanengatik edo ezarritako edo handitutako udal-zerbitzu publikoengatik.

2.2. Kontribuzio bereziak eskatu ahal izango dira obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik, besterik ez, lehen aitatu bezala, subjektu pasiboek obra eta zerbitzu horiek benetan erabiliko dituen ala ez kontuan hartu gabe.

3. artikulua.-

3.1. Honako hauexek izango dira udal-arloko zerbitzuak edo obrak:

a) Udalak bere eskumenen esparruan egindakoak edo ezarritakoak, esleitu dizkieten helburuak betetzeko asmoz, bere ondare-ondasunen jabe moduan betearazten dituenak alde batera utzita.

b) Beste erakunde publiko batzuek esleitu edo eskuordetu dizkiotenez, udalak berak egindakoak edo ezarritakoak, baita legearen arabera bere titularitatepekoak direnak ere.

c) Erakunde publikoek edo emakidadunek egindakoak, udalaren ekarpen ekonomikoen bitartez.

3.2. Aurreko idatz-zatiko a) letran aipatutakoak udaleko obrak edo zerbitzuak izango dira beti, udaleko organismo autonomoek edo udalak jarritako kapital soziala bakarrik duten merkataritza-sozietateek, udalaren ekarpenen bidez emakidadunek edo zergadunen elkarteek garatzen badituzte ere.

3.3. Kontribuzio bereziengatik bildutako zenbatekoak eskakizunaren helburu diren zerbitzu edo obren gastuak ordaintzeko bakarrik erabili ahal izango dira.

4. artikulua.-

Udalbatzak hautaz erabaki ahal izango du kontribuzio bereziak ezartzea eta antolatzea, betiere, zerga-egitatea osatzen duten inguruabarrak, ordenantza orokor honetako 2. artikuluan zehaztutakoak, tokiko obra eta zerbitzu guztietan ematen badira, aurreko artikuluan adierazten den bezala.

III. KAPITULUA. SUBJEKTU PASIBOAK.

5. artikulua.-

5.1. Kontribuzio berezietako subjektu pasiboak izango dira Zergei buruzko Lege Orokorreko 33. artikuluan aipatutako pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baina, batez ere, kontribuzioaren ordainketa sorrarazi duten obrak egiteagatik edo udal-zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik onura lortzen dutenak.

5.2. Honako hauexek onura handia lortu dutela hartuko da kontuan: a) Ondare-ondasunetan eragina duten zerbitzuak ezarri edo handitzeagatiko edo obrak egiteagatiko kontribuzio berezietan, jabeak. b) Enpresa-ustategien ondorioz zerbitzuak ezarri edo handitzeagatiko edo obrak egiteagatiko kontribuzio berezietan, ustategi horien titularrak diren pertsonak edo erakundeak. c) Suteak itzaltzeko zerbitzuak ezarri edo handitzeagatiko kontribuzio berezietan, eraginpeko ondasunen jabeak eta udalerrri honetako udal-mugartean adar horretako jarduera garatzen duten aseguru-konpainiak. d) Lurpeko galeriak eraikitzeagatiko kontribuzio berezietan, galeria horiek erabiliko dituzten enpresa hornitzaileak.

6. artikulua.-

6.1. Hala badagokio, ordenantza honetako 10. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoari inolako kalterik egin gabe, kontribuzio bereziak Jabetza Erregistroan ondasun higiezinaren jabe edo edukitzaile moduan agertzen diren pertsona natural edo juridikoen konturakoak izango dira zuzenean; edo Merkataritza Erregistroan edo Ekonomia Jardueren gaineko Zergako Matrikulan obren edo zerbitzuen eraginpeko ustategien edo negozioen titular moduan agertzen direnen konturakoak, obrak noiz amaitzen diren edo zerbitzugintza noiz hasten den kontuan hartuta.

6.2. Jabetza horizontaleko araubidepeko kasuetan, jabeen erkidegoko ordezkariak udal-administrazioari esango dio nor diren jabeak eta zenbateko partaidetza-koefizientea duten erkidegoan bertan, banakako kuotak jaulki ahal izateko. Horrela egiten ez bada, kuota bakarra jaulkitzea onartzen dela hartuko da kontuan, eta erkidegoak berak banatu beharko du ondoren.

6.3. Jabari erabilgarriari eta zuzenari begira hobekuntza edo onura lortu duen finkaren jabeak desberdinak izanez gero, hobekuntzak lehenengoaren higiezinaren balioa gehitzen duela eta bigarrenak onartu egiten duela eta bere onurarako dela hartuko da kontuan, Kode Zibilean xedatutakoaren arabera kalte-ordainen ondorioetarako.

6.4. Jabaria mugatu edo banatu egiten den kasu guztietan, kuoten likidazioari eta kobrantzari buruzko jakinarazpenak higiezinaren jabeei, benetako eskubideen titularrei eta gozameduneei egingo zaizkie, kasuan-kasuan.

IV. KAPITULUA. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

7. artikulua.-

7.1. Kontribuzio berezien arloan, lege-mailako xedapenen edo nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez ezarritako zerga-onurak baino ez dira aitortuko.

7.2. Aurreko artikuluan kontuan hartutako kasuan, zerga-onurarako eskubidea dutela uste dutenek udalari eskatu beharko diote aitortzeko, eta bere asmoa zer agindutan babesten den azaldu beharko dute.

7.3. Kontribuzio berezietan zerga-onurak aitortzen direnean, onuraduneei egokitu ahal izan zaizkien kuotak edo, hala badagokio, hobarien zenbatekoa ezin izango dira gainerako subjektu pasiboen artean banatu.

V. KAPITULUA. ZERGA-OINARRIA.

8. artikulua.-

8.1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria udalak obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik jasandako kostuaren %90ekoa izango da gehienez ere. Antolamenduari buruzko kasuan kasuko erabakian, udalak zehaztu beharko du zenbatekoa den jasandako obraren kostuaren ehunekoa, egoera zehatz bakoitzean

kasuan kasuko kontribuzio bereziaren zerga-oinarria izango dela kontuan hartuta. Edonola ere, beti-beti oinarri horren %90 izango da muga.

8.2. Kostu horretan, honako kontzeptu hauek hartuko dira kontuan: a) Peritulanen, proiektuen prestaketaren, obren zuzendaritzaren eta plano zein programa teknikoen benetako kostua. b) Egin beharreko obren edo zerbitzuak ezartzeko edo handitzeko egin beharreko lanen zenbatekoa. c) Obrek eta zerbitzuak behin betiko okupatu beharreko lursailen balioa, betiere, erabilera publikoko lursailak, udalari dohainik eta derrigorrean lagatako higiezinak edo Estatuko Ondareari buruzko Legeko 77. artikuluan xedatutakoaren arabera lagatako higiezinak ez badira. d) Eraikinak eraisteagatik eta landaketak, obrak edo instalazioak suntsitzeagatik sortutako kalte-ordainak, baita eraitsi edo okupatu beharreko ondasunen errentariei dagozkienak ere. e) Obretan edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, udalak kreditua erabili behar duenean kontribuzio bereziek estaltzen ez duten zatia edo, haien ordainketa oro har zatituz gero, kontribuzio bereziek estalitakoa finantzatzeko orduan.

8.3. Obren edo zerbitzuen aurrekontuan adierazitako guztizko kostua aurreikuspena baino ez da izango. Benetako kostua aurreikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa izanez gero, huraxe hartuko da kontuan kasuan kasuko kuotak kalkulatzeko orduan.

8.4. Udalaren ekarpen ekonomikoen bidez beste erakunde publiko batzuek edo emakidadunek egindako obrak edo zerbitzuak direnean, ekarpen horien zenbatekoaren arabera zehaztuko da zein den kontribuzio berezien zerga-oinarria, beste administrazio publiko batzuek obra edo zerbitzu berberagatik ezarri ditzaketenak kontuan hartu gabe. Nolanahi ere, artikuluko honetako lehenengo idatz-zatian aipatutako %90eko muga errespetatuko da.

8.5. Zerga-oinarria zehazteko asmoz, guztizko kostuari estatuak edo beste edozein pertsona edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntzen edo laguntzen zenbatekoa kentzean lortutako zenbatekoa izango da udalak jasandako kostua. Dirulaguntza edo laguntza ematen duen pertsona edo erakundea kontribuzio berezietako bertako subjektu pasiboa bada, dirulaguntzaren edo laguntzaren zenbatekoa zergadun horren kuota konpentsatzeko erabiliko da lehendabizi, eta, soberakinik balego, gainerako subjektu pasiboen kuota hainbatu eta murriztu egingo litzateke.

VI. KAPITULUA. KUOTA.

9. artikulua.-

9.1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria obren, instalazioen edo zerbitzuen onura erdiesten duten subjektu pasiboen artean banatuko da, haien mota zein izaera kontuan hartuta eta honako arau hauei eutsita: a) Oro har, batera edo banatuta, banaketa-modulu moduan ezarriko dira higiezinetakako fatxadaren metro linealak, haien azalera, haien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako katastro-balioa. b) Banaketa-modulu moduan ezarriko dira finka onuradunetako fatxadaren luzerak, eta bide publikoan fatxada duten finkak izango dira fatxadaren kanpoko lerroakarekin bat eginda eraikita daudenak, baita isolatutako blokeetan eraikita daudenak ere, etxe-uharte hori zedarrizten duen eta obraren helburu den bide publikoari dagokionez bere egoera edonolako dela ere. Hori dela eta, halakoetan, fatxadaren luzera neurtzeko orduan, finkako orubearen luzera hartuko da kontuan, eraikinaren inguruabarrak, atzeraemanguneak, patio irekiak, lorategiak edo eremu zabalak edonolakoak direla ere. c) Bi fatxadak alakan edo bihurtunean bat egiten dutenean, fatxadaren luzera neurtzeko orduan alakaren luzeraren erdia edo bihurtunearen garapenaren erdia hartuko da kontuan, eta berehalako fatxaden luzerari gehituko zaio. d) Suteak itzaltzeko zerbitzua ezarri edo handitzen bada, udalerrri

honetan kokatutako ondasunengatiko arriskua estaltzen duten erakundeen edo sozietateen artean banatu ahal izango dira, aurre-aurreko urtean bildutako sarien zenbatekoaren proportzioan. Subjektu pasibo bakoitzari eskatu ahal zaion kuota bildutako sarien zenbatekoaren %5 baino handiagoa izanez gero, soberakina segidako ekitaldietan ezarriko da harik eta oso-osorik amortizatu arte.

10. artikulua.-

10.1. Era guztietako obretan, obraren edo zerbitzuaren ibilbide, tarte edo ataletan aleko kostuaren aldeak interesdunentzako erabilgarritasunaren edo onuraren mailan antzeko alderik ez badauka, kasuan kasuko planeko zati guztiak batera kontuan hartuko dira banaketari begira. Horren ondorioz, banakako kuotak zehazteko orduan, ez da bakarrik kontuan hartuko zergadun bakoitzean berehalako eragina daukan tartearen edo atalaren kostu berezia.

10.2. Horren bitartez, kuotak berdintasunezkoagoak direnean, guneak zedarritu ahal izango dira obrek edo zerbitzuek eskainitako onura-mailaren arabera, indize zuzentzaileak gune bakoitzak haien kokaguneari dagokionez daukan distantziarekiko alderantzizkotasunez ezarri ahal izateko.

VII. KAPITULUA. SORTZAPENA.

11. artikulua.-

11.1. Kontribuzio bereziak obrak betearazitakoan edo zerbitzugintza hasitakoan sortuko dira. Obrak zatitzeko aukerarik egonez gero, obrako tarte edo zati bakoitzari dagozkionak betearazi direnetik gauzatuko da subjektu pasibo bakoitzarentzako sortzapena.

11.2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari inolako kalterik egin gabe, ezarpenerako eta antolamendurako erabaki zehatza onartu ostean, udalak aurretiaz eskatu ahal izango du kontribuzio bereziak hurrengo urterako aurreikusitako zenbatekoaren arabera ordaintzeko. Dena dela, ezin izango da urteko berri bat aurreratzeko eskatu, aurrerakinaren helburu diren obrak betearazi ez badira.

11.3. Kontribuzio bereziak sortzeko unea ordainketa-betebeharpekoa zehazteko orduan hartuko da kontuan, ordenantza honetako 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, nahiz eta antolamenduari buruzko erabaki zehatzean subjektu pasibo moduan agertu onarpenaren datan subjektu pasibo hori dena eta subjektu horrek kuoten ordainketa aurreratu, artikulua honetako 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera. Antolamenduari buruzko erabaki zehatzean subjektu pasibo moduan agertzen denak, betiere, jakinarazia izan bada, erabaki horren onarpenaren eta sortzapenaren artean dagoen epealdian ezarpena sorrarazi duten ondasunen edo ustiategien gaineko eskubideak eskualdatzen dituenean, udal-administrazioari egindako eskualdaketaren berri eman beharko dio hilabeteko epean erabakiaren datatik hasita. Halakorik egingo ez balu, administrazio horrek kobrantza-ekintza zuzendu ahal izango du espediente horretan subjektu pasibo moduan agertzen denaren kontra.

11.4. Obrak oso-osorik edo zati batez egindakoan edo zerbitzugintza hasitakoan, subjektu pasiboak, oinarria eta banakako behin betiko kuotak zein diren zehaztu, kasuan kasuko likidazioak igorri eta konturako entrega moduan konpentsatuko dira egin diren ordainketa aurreratu guztiak.

11.5. Ordainketa aurreratuak zergaren sortzapenaren datan subjektu pasiboak ez direnek egin badituzte edo dagokien banakako behin betiko kuota gainditu badute, udalak kasuan kasuko zenbatekoa itzuliko die ofizioz.

VIII. KAPITULUA. EZARPENA ETA ANTOLAMENDUA.

12. artikulua.-

12.1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, udalbatzak kasu zehatz bakoitzean ezartzeko erabakia hartu beharko du alde zuzenetik.

12.2. Kontribuzio berezien bitartez ordaindu beharreko obra egiteko edo zerbitzua ezartzeko edo handitzeko erabakia ezin izango da betearazi harik eta udalbatzak berak haien antolamendu zehatza ere onartu arte.

12.3. Lehen antolamenduari buruz aipatutako erabakia derrigorrean hartu beharko da, eta honako hauexehatu beharko da bertan: obren zein zerbitzuen kostu aurreikusia, onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banaketarako irizpideak, ezarri beharreko guztian Kontribuzio Bereziei buruzko Ordenantza Orokor hau kontuan hartuta, halaxe behar izanez gero.

13. artikulua.-

13.1. Kontribuzio berezien ezarpenari eta antolamenduari buruzko erabakiak hartutakoan eta zergako subjektu pasiboek ordaindu beharreko kuotak zein diren zehaztutakoan, izapidetutako espedientearen 30 eguneko jarriko da ikusgai jendaurrean, «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» eta udaletxeko ediktuen taulan txertatuko den iragarkiarekin bidez. Horrez gain, kuotak banan-banan jakinaraziko zaizkio subjektu bakoitzari, bera edo bere helbidea ezaguna izanez gero; eta, besterik ezean, ediktuen bidez.

13.2. Interesdunek honako hauexehatzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute udalaren aurrean: kontribuzio berezien jatorria, onura handia lortzen dutenek ordaindu beharreko kostuaren ehunekoa edo esleitutako kuotak.

14. artikulua.-

14.1. Obrak egiteko edo zerbitzuak ezarri edo handitzeko orduan udal honek tokiko beste erakunde batekin lan egiten duenean, honako arau hauek bete beharko dira, betiere, kontribuzio bereziak ezartzen badira: a) Erakundeek euren eskumenei eutsiko diete ezarpenari eta antolamenduari buruzko erabaki zehatzen arabera. b) Obrak egiteko edo zerbitzuak ezarri edo handitzeko orduan erakundeetako batek bestearen lankidetzaren ekonomikoa jasotzen badu, lehenengoak kontribuzio berezia kudeatu eta bildu egin beharko du, aurreko a) letraren xedatutakoari inolako kalterik egin gabe.

14.2. Erakunde horietako batek antolamenduari buruzko erabaki zehatz hori onartuko ez balu, jarduketaren unitatea eraginik gabe geratuko litzateke, eta erakunde bakoitzak kasuan kasuko erabakiak hartu beharko litzake bere kabuz.

IX. KAPITULUA. KUDEAKETA.

15. artikulua.-

Kontribuzio bereziak honako hauexetan zehaztutako moduan, epeetan eta baldintzetan kudeatu, likidatu, ikuskatu eta bildu egin beharko dira: Zergei buruzko Lege Orokorra, estatuan gai hori arautzen duten beste lege batzuk eta legearen garapenerako emandako xedapenak.

16. artikulua.-

16.1. Ordaindu beharreko kuota zehaztutakoan, zergadunak eskatuz gero, udalak zatitzeko edo geroratzeko aukera eman ahal izango dio, eta gehienez ere bost urte izango du horretarako. Izan ere, geroratutako zenbatekoen berantortasun-interesaren zenbatekoa ere kontuan hartzen duen zerga-zorra ordaindu egingo dela



bermatu beharko da, hipotekaren, prendaren, bankuko abalaren edo korporazioari ordaintzeko moduko beste edozein bermeren bidez.

16.2. Zatitzeko edo geroratzeko eskaera onartu ahal izateko, eskatzailea ados egon beharko da kasuan kasuko zerga-kuotaren zenbateko osoarekin.

17. artikulua.-

Eskualdatuta ala ez, haien edukitzailea edonor dela ere, zerga ordaintzeko betebeharra sortzen denetik hasita finkak edo lursailak bost urtez egongo dira kasuan kasuko kuotak ordaintzeko erantzukizun subsidiarioaren eraginpean. Hain zuzen ere, esleitutakoak eta ez ordaindutakoak higiezinentzako benetako karga izango dira, eta udalaren aldeko legezko hipoteka egongo da, Hipotekei buruzko Legeko 194. artikuluan eta legearen osagarri diren xedapenetan zehaztutako moduan.

X. KAPITULUA. ZERGADUNEN ELKARTE ADMINISTRATIBOA.

18. artikulua.-

18.1. Udalak sustatutako obren garapenaren edo zerbitzuen ezarpenaren edo zabalkuntzaren eraginpeko finken jabeek edo enpresen titularrek Zergadunen Elkarte Administratiboa eratu ahal izango dute kontribuzio bereziak antolatzeko erabakia jendaurrean ikusgai dagoen epealdian.

18.2. Aurreko idatz-zatian aitatutako zergadunen elkarte administratiboak eratzeko erabakia interesdunen gehiengo hartu beharko da, betiere, gutxienez ordaindu beharreko kuoten bi heren ordezkatzan badute.

19. artikulua.-

19.1. Zergadunen Elkarte Administratiboa eratzeko erabakia hartu ondoren, eraketa-eskabidea udalari aurkeztu beharko zaio jendaurrean ikusgai jartzeko epealdi horretan, baita hartutako erabakiari buruzko agiri sinesgarriak eta haren jarduera arautuko duten estatutuak ere.

19.2. Zergadunen Elkarte Administratiboa eraturakoan, subjektu pasibo bakar batek ere ezingo du esan elkarte horretako kidea ez denik, eta bertan ordenantza honetako 18.2. artikuluan adierazitako gehiengo hartutako erabakiak interesdun guztiek bete beharrekoak izango dira.

20. artikulua.-

20.1. Finken jabeek eta industria zein merkataritza arloko establezimenduen titularrek euren ekimenez sustatu ahal izango dute udalak obrak egitea edo zerbitzuak ezartzea edo handitzea. Halaber, behar besteko konpromisoa hartu beharko dute, udalari dagokion zatia ordaintzeko.

20.2. Horretarako, Zergadunen Elkarte Administratiboa eratu beharko da aurreko artikuluetan adierazitako gehiengoaren, antolamenduaren eta ondorioen arabera, eta kasuan kasuko eskabide-idazkia aurkeztu beharko da.

20.3. Hasiera batean, korporazioak horri buruzko erabakia hartuko du, eta Udaleko Zerbitzu Teknikoei eskatuko die obraren edo zerbitzuaren proiektua eta aurrekontua egiteko. Bestela, interesdunek aurretiaz aurkezten dituztenean, parekatzeko eskatuko du, eta, hala badagokio, haien onarpenaren berri eman beharko du.

21. artikulua.-

Honako hauxe egin beharko du aurreko artikuluan aipatutako elkarte administratiboak: a) Udal-kutxetan sartu beharko du obren edo zerbitzuen aurrekontuaren zenbateko osoa obra edo zerbitzu horiek hasi baino lehen. Horrez



gain, benetako kostuaren eta aurreikusitakoaren artean egon daitekeen aldea ere ordaindu beharko du bere garaian. Edonola ere, obren iraupena urtebetetik gorakoa izanez gero, dirua aurretiaz sartzeko betebeharrak ezin izango du kasuan kasuko urtekoaren zenbatekoa gainditu. b) Behar besteko ahalmena izango du, udalak emandako premiamendu administratiboaren bitartez ere, zergadun bakoitzaren behin-behineko kuotak eta osagarriak ordaindu daitezela eskatzeko.

XI. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

22. artikulua.-

22.1. Zerga-arloko arau-hausteei zein haien sailkapenei eta kasuan kasuko zehapenei dagokien guztian, Zergei buruzko Lege Orokorreko arauak ezarriko dira.

22.2. Zehapenak ezarri arren, ez dira inolaz ere sortutako eta preskribitu gabeko kuoten likidazioa eta kobrantza etengo.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza honek 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina, eta indarrean jarraituko du harik eta indarrik gabe uzteko edo aldatzeko berariazko erabakia hartu arte.